

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iratxe Retolaza Gutierrez

*Donostia,
Gipuzkoa
(1977)*

Aurkibidea



Biografia



Gurasoak bilbotarrak zituen, lan-kontuengatik Zarautzera bizitzera joandakoak. Beraiek euskaraz ez zekiten arren, argi zuten alabak ikastolara bidaliko zituztela; Zarauzko ikastolan ez zegoenez tokirik, Donostiara joan ziren bizitzera. Iratxek eta bere bi ahizpek Zurriola ikastolan ikasi zuten. Groseko institutuan ibili ondoren, Iratxek Euskal Filologia ikasi zuen, Gasteizen. Doktoretza ere egin zuen. EHUKo irakaslea da, aditua euskal literaturan eta feminismoan. eta UEUKo Literatura sailburua. "[Gure genealogia feministak](#)" liburuaren egileetako bat da. Euskaltzain urgazlea ere bada.

Zintak

DON-216

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-05-11
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-217

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-05-10
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Donostiara, hiru ahizpek euskaraz ikas zezaten

- **Erref:** DON-216/002
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:00:54. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gurasoak, bere ahizparentzat ikastola bila ari zirelako, Donostiara aldatu ziren bizitzera eta hantxe jaio zen Iratxe. Zurriola ikastolan hasi zen bere ahizpa ikasten, etxe batean. Hiru ahizpek euskara ikas zezaten gurasoek egindako ahalegina azaltzen du.

2. Jarrera feminista amaren eskutik

- **Erref:** DON-216/005
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amarengandik jaso du genero ikuspegia etxean. Bere ama ez zen aktibista izan feminismoan, baina ikuspegia oso argi azaltzen zuen egunerokoan. Munduan egoteko leku naturala izan da beretzat feminismoa.

3. Berdintasun liluraren atzeko talkak

- **Erref:** DON-216/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Gaztetxoa zenean, naturaltasunez aldarrikatzen zuena ez zuen feminismoaren baitan egiten. Gerora ikasi duen zerbait izan da. Bere belaunaldiari berdintasunaren lilura transmititu zieten, ez zela feminismoa hainbeste behar, askatasun batzuk lortuta zeudelako. Lan munduan, bikote harremanetan, familia ereduetan... ikusi zituzten talkak geroago.

4. Enplegua ez zen askapen bide izan

- **Erref:** DON-216/009
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:16:04. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Irakurle taldeei esker, belaunaldi askotako esperientziak ezagutzeko aukera izaten du. Garai bateko emakumeek uste zuten enpleguarekin askapenerako bidea izango zutela, baina ez zen hala izan, eta uste du agian egoera zailagoan ere badaudela emakumeak orain.

5. Mugimendu feministaren sorrera Ipar Euskal Herrian

- **Erref:** DON-216/013

- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:25:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

70eko hamarkadan, Ipar Euskal Herrian hasi zen feminismoa errotzen. Frantzia 68ko maiatzaren ondoren, bazegoen mugimendua. Frankismoak generoa arautu zuen oso modu ertsian. Adibideak ematen ditu. Bi auzi nagusi zeuden orduan: kontrazepzioa eta abortua. Frantziako giroaren itzalean, Ipar Euskal Herrian aborturako guneak sortu ziren.

6. 70eko hamarkada, zapalkuntza hirukoitzaren diskurtsoa

- **Erref:** DON-216/014
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

70eko hamarkadan, gertatu zen alderdi politikoak egituratzen hasi zirela eta ezker abertzalean militatzen hasi zirela emakumeak. Ikastolen mugimenduaren baitan militante kulturalak ere baziren. Ohartu ziren gizonezkoek beste rol batzuk ematen zizkietela mugimenduotan. Hortik sortu zen zapalkuntza hirukoitzaren ikuspegiaren garapena eta diskurtsoak sortzen hasi ziren Ipar Euskal Herrian. Orduan sortu ziren hainbat adar mugimendu feministaren baitan. Frankismoan eratu ziren emakumeak elkartzeko guneak indartu egin ziren trantsizioan. Orduko borroka gai nagusiak azaltzen ditu.

7. Basauriko hamaika lagun en epaiketa mugarr

- **Erref:** DON-216/015
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Dibortzioaren legea 1981ean onartu zen. Abortuaren gaian Basauriko hamaika lagun en epaiketa izan zen mugarr. Berak oso berandu izan zuen horren berri eta haserrea eragin zion. Emakume asko mobilizatu ziren orduan, baita antolatu ere.

8. Trantsizioak frankismoko genero sistemari eutsi nahi

- **Erref:** DON-216/016
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:33:41. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Basauriko hamaika lagun epaitu zituzten abortua praktikatu edo saiatzearatik. Erregimen berriak frankismoko gauza batzuei eutsi nahi izan zien; epaiketan oso argi ikusi zela azaltzen du. Genero sistema arrakalatzeko orduko mugimenduak itzalean geratu izan dira.

9. Abortuaren aldeko mobilizazio ausartak

- **Erref:** DON-216/017
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:37:24. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Frantziako eredu jarraituta, "nik ere abortatu dut" sinatu zuten emakume askok. Katolikotasunak indar handia zeukan gizartean, baita abertzaletasunaren baitan ere. Ausardia handiko mobilizazioak izan ziren.

10. Burgoseko epaiketako emakumeei babesa emateko martxa Behobiara

- **Erref:** DON-216/022
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:46:08. **Bukatu:** 00:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Burgoseko prozesua izan zenean, Ipar Euskal Herrian emakumeen martxa antolatu zuten mugarantz, epaiketako emakumeei babesa emateko, frankismoa salatzeke eta "Amaren etxea defendatuko dut" aldarrikatzeko. Hendaia Behobiara mila emakume joan ziren.

11. Bi eredu: estatuko mugimendu feministaren ordezkaritza eta abertzalea

- **Erref:** DON-216/024
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:39. **Bukatu:** 00:52:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Ipar Euskal Herrian bi adar izan ziren feminismoan: Frantziako mugimenduaren ordezkaritza eta ezker abertzalearekin harremana zuten taldeak. Gaur egun ere antzera gertatzen da Euskal Herrian orokorrean.

12. Talde feministen sorrera Hego Euskal Herrian

- **Erref:** DON-216/026
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:57:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Hego Euskal Herrian langile mugimenduaren baitan 60ko hamarkadan bazegoen emakumeen mugimendua. 1975ean mundu mailan "Emakumeen Nazioarteko urtea" aldarrikatu zuten eta Franco hil zen. Egoera horretan sortu ziren talde feministak, batzuk estatukoei lotuak, beste batzuk bertakoagoak. Jardunaldi feministak egin zituzten eta haren ondorioz etorri dira geroko jardunaldiak eta taldeen arteko harremanak.

13. Militantzia bikoitza feminista abertzaleek

- **Erref:** DON-216/028
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Militantzia bikoitzaren gaia azaltzen du. Ezkerreko mugimendua eta mugimendu feministaren arteko harremanak eztabaidagai izan ziren eta izaten dira. Gaur egun mugimendu feministak militanteak batzen ditu, eta badu beste gune batzuetan egon daitezkeen feministekin aliantzak egiteko joera.

14. Leioako jardunaldi feministak

- **Erref:** DON-216/029
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:02:25. **Bukatu:** 01:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

1977an Leioako jardunaldi feministak mugarri izan ziren; emakume asko bertaratu zen bere burua feministatzat joz. Ariketa kolektiboa izan zen. Aurrez barne saretze bat egina zegoen.

15. Nazio mailako koordinakunde feminista

- **Erref:** DON-216/030
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:05:46. **Bukatu:** 01:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Jardunaldi feministek aitortza eta saretzea ekarri zituzten eta nazio mailako koordinakundea osatzea erabaki zuten, eragile politiko izateko. 80ko hamarkada asanbladen garaia izan zen eta lurraldeko bana sortu zen.

16. Leioako jardunaldi feministen ondoren, aldaketak gizartean

- **Erref:** DON-216/032
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:08:56. **Bukatu:** 01:10:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Leioako jardunaldi feministek oihartzun izugarria izan zuten prentsan. 1975etik badago estatuek berdintasunerako neurri batzuk ezarri beharraren eskaera. Mugimendu feministaren ekarpenek gizartea blaitu zuten eta aldaketarako giroa sortu zuten.

17. KAS Emakumeak, Aizan, Egizan, Bilgune Feminista

- **Erref:** DON-216/034
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:12:43. **Bukatu:** 01:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

KAS koordinadoraren barruan zapalkuntza hirukoitzaren ikuspegia lantzen zuen KAS Emakumeak taldea sortu zen. Hura desegin zenean, Aizan sortu zen, eta ondoren EGIZAN, ezker abertzalearen barruan. 2002an Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zen, zapalkuntza hirukoitza lantzen duena, euskaratik eta euskaraz. Gaur egun, zapalkuntza anizkoitza hartzen dute kontuan.

18. Transfeminismoaren ekarpena Euskal Herrian

- **Erref:** DON-216/036
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:17:06. **Bukatu:** 01:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Transfeminismoaren ikuspegia MEDEAK taldeak ekarri zuen. Hasieran irakurketa prozesua izan zen. 2009ko Granadako jardunaldi feministetan tranfeminismoa sendo agertu zen eta hark eragin zuen gaiarekiko birkokatzea. Transexualitatea despatologizatzeko aukera garai hartan zegoen mahai gainean. Gaiari buruzko liburua euskaraz atera zuten, handik eta hemendik bildutako ekarpenekin.

19. Begirada transfeminismora

- **Erref:** DON-216/037
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:21:10. **Bukatu:** 01:23:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Moioaren gertaeraren berri izan zuten. Transexuala zen eta gizartearen presioaren ondorioz, bere buruaz beste egin zuen. Euskaldun bezela ere interpelazioa sentitu zuten. Begirada hortan ere jarri beharra zegoela ikusi zuten.

20. Mugimendu feministaren subjektu politikoa eztabaidagai

- **Erref:** DON-216/039
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 01:24:17. **Bukatu:** 01:29:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Euskal Herriko mugimendu feministan transfeminismoaren ekarpenak erabat errotuta daudela uste du. Mugimendu feministak ze subjektu politiko izan behar duen eztabaida dago. Bere iritzia ematen du.

21. Feminismo erradikala

- **Erref:** DON-216/043
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:30:24. **Bukatu:** 01:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismo erradikalak sistema errotik hautsi nahia eta autonomia izatea ditu ezaugarri. Frantziako mugimenduetan sortutako taldeak izan ziren.

22. LGBTBI mugimendua eta mugimendu feminista batera

- **Erref:** DON-216/045
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:33:28. **Bukatu:** 01:35:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Heterosexualitatea erabili izan da genero sistema zehatz bat ezartzeko. Instituzio hori zalantzan jartzean, borroka beraren parte izan dira LGTBI mugimendua eta mugimendu feminista. Euskal Herrian bateratsu sortu ziren.

23. Abortuaren Legearen baldintzak

- **Erref:** DON-216/050
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:39:06. **Bukatu:** 01:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Abortuaren legea egin zenean, baldintza asko ezarri ziren. Oraindik ere borroka bat da. Osakidetza ez ditu ondo artatzen abortu kasuak.

24. Feminismoa erakundeetan; Plazandreak

- **Erref:** DON-216/052
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:41:26. **Bukatu:** 01:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

90eko hamarkada erakundetze garaia izan zen. Erakundeetan feminismoak gune batzuk hartzen ditu. Giro horretan sortu zen Plazandreak taldea Donostian, hauteskundeetara aurkeztu izan dena. Oso eragile garrantzitsua izan da hirian.

25. Emakumeen Mundu Martxa mugarri

- **Erref:** DON-216/053
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 01:43:50. **Bukatu:** 01:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

2000n Emakumeen Mundu Martxa antolatu zen eta aurreko hamarkadarekiko beste giro bat sortzen ari zela sumatzen zuen. Beretzat mugarri izan zen, oso jai giroan egin zelako, munduko emakumeekin konektatzearen imajinarioa sortu zelako eta Euskal Herriko feminista asko ezagutu zituelako. Emakumeen Mundu Martxak lurraldea hartzea eta bertan ibiltzea oso ekintza indartsua da.

26. Irakurketa baikorra eta ezkorra feminismoa modan egoteaz

- **Erref:** DON-216/057
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 01:51:57. **Bukatu:** 01:56:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Irakurketa baikorra eta ezkorra egiten ditu feminismoa gizartean ondo ikusia egoteaz; mugimendua indartsua dela orain, batetik, eta horregatik beragatik sistemak mugimendua irentsi nahi duela, bestetik. Sistemak feminismoa desprestigiatzeko, bere erara izendatu, desitxuratu, urtu eta lausotu egiten du.

27. Berdintasun Legea, mugatua

- **Erref:** DON-216/059
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:57:08. **Bukatu:** 01:59:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

EAEko Berdintasun Legeak neurriak hartu beharra ekarri zuen. Bere ikuspegitik parekidetasunari begira ari dira, ez gizarte eraldaketa feministari begira. Adibideak jartzen ditu.

28. Parekidetasunetik harantzago

- **Erref:** DON-216/061
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 02:00:04. **Bukatu:** 02:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Euskal telebistan emakume gutxiago agertzen dela esaten da. Bera gonbidatu izan dute, baina askotan interesatzen ez zaiona da hor dagoen markoan parte hartzea, kontua ez baita emakume-gizon kopuruan oreka lortzea; beste gauza asko aldatu behar direla uste du.

29. Feminismoan egoteko modu asko

- **Erref:** DON-216/063
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 02:01:50. **Bukatu:** 02:04:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismoan egoteko modu asko daude. Badaude praktika kulturalak egiten dituztenak. Taldeen artean, erdigunean gai ezberdinak dituztenak daude. Beste talde batzuk aldarrikapenei eta eragiletza politikoari begirakoak dira. Batzuentzat euskara eta Euskal Herria ardatza dira, eta beste batzuentzat ez. Badago feminismo marxista gaur egun. Dekolonizatetik pentsatzen ari diren taldeak ere badaude.

30. Feminismoan egoteko modu asko II

- **Erref:** DON-216/064
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 02:04:59. **Bukatu:** 02:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Talde antiarrazisten artean bi mota daude: mixtoak (arrazializatuak eta besteak biltzen dituenak) eta arrazializatuak osatutakoak. Adinaren arabera talde espezifikoak ere badaude. Emakume edo posizio bakoitzak dituen premien arabera, feminismo mota ezberdinak egituratzen dira. Sare horiek guztiak komunikatuta daude eta norberak aukeratu dezake batean edo bestean parte hartzea.

31. Feminismoaren olatuena, birpentsatzeko

- **Erref:** DON-216/066
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 02:08:28. **Bukatu:** 02:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Feminismoaren olatuen gaia azaltzen du. Lehenengoan emakumeen eskubideen eskaera zen nagusi; bigarrenean gizarte ikuspegitik egiturak eta diskurtsoak aldatzea eskatu zuten; hirugarrenean feminista da subjektu nagusia, genero eraikuntza deseraikitzeke. Gizarte aniztasuna handitu ahala, feminismoaren baitan subjektuak ere aniztu egin dira. Dekolonialitateak dakar olatuak alde batera uztea.

32. Ikuspegi dekoloniala, historia birpentsatzeko aukera

- **Erref:** DON-216/067
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 02:12:52. **Bukatu:** 02:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Ikuspegi dekolonialetik, mendebaldeak sortu ditu mundua ikusteko moduak, eta zapaltzaileak dira, besteen gainetik jartzen direlako arlo askotan, teorikoan zein praktikoan. Birpentsatu beharko litzateke Euskal Herriko mugimendu feministaren markoa bera.

33. Zaintza krisia, egungo erronka

- **Erref:** DON-216/069
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 02:15:21. **Bukatu:** 02:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Egungo erronka zaintza krisia dela uste du. Enplegurako gero eta ordu gehiago eskatzen da, batetik. Klase gehienetan, familiako bi pertsonen lan egin behar dute familia aurrera ateratzeko. Komunitate afektiboen zaintza emakumeek egiten dute; enpleguko komunitateen zaintza ere emakumeek egiten dute. Norbait zaintzen duzunean, denbora oparitzen diozu norbaiti.

34. Zaintza komunitarioa eraiki beharraz

- **Erref:** DON-216/070
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 02:19:03. **Bukatu:** 02:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Gizartea zahartzeak zaintza krisia nola areagotuko duen azaltzen du. Enplegu baldintzek zaintza zailtzen dute. Etorkizunean erronka izango da nola sortu komunitate komunitarioak zaintza lanen ardura hartzeko.

35. Familia ereduak aldatu beharraz

- **Erref:** DON-216/072
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 02:22:32. **Bukatu:** 02:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Familia instituzio bezala ez da asko aldatu, nahiz eta badauden bestelako praktikak ere. Pandemiak areagotu egin zuen ikuspegi hori, legez. Guraso ereduak aldatu arren familia ereduak aldatzen ez bada, genero rola eta gurasotasun rola aldatzea zaila izango da.

36. Maitasun erromantikoaren kalteak

- **Erref:** DON-216/074

- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 02:24:43. **Bukatu:** 02:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Maitasun erromantikoaren mitoa oso bizirik dagoela uste du. Erromantizismoaren garaian sortu zen eta askatzailetik bazuen, ezkontza ekonomikoetatik irtetzeko tresna moduan. Maitasun erromantikoaren bilakaera azaltzen du. Masa kultura guztian oso presente dago eta genero ikuspegian eragin handia dauka. Bilaketa obsesiboa bihurtu daiteke nerabezaroan, barne bilaketaren aurretik jarrita.

37. Amatasunarekiko biolentzia

- **Erref:** DON-216/076
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 02:29:46. **Bukatu:** 02:35:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Feminismoa

Laburpena:

Gizartean presioa dago ama izateko, baina aldi berean gero eta emakume gehiagok erabakitzen dute ama ez izatea. Gaur eguneko gizartean amatasunarekiko dauden biolentzien inguruan isiltasuna dagoela uste du. Arrazoi bat seme-alabak mintzea izan daitekeela dio, baina egiturazko arazoei erreparatzearen beharraz ari da. Amatasuna desmitifikatzeak baliabideak ematen dizkio ondorengo belaunaldiari.

38. Bixenta Mogel, alegiak egiten aitzindari

- **Erref:** DON-217/002
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 00:00:59. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ahozko literaturan emakume askok parte hartzen zutela jakina da. Idatzizkoan, Bixenta Mogel da lehen izenatariko bat. "Ipuin onak" izeneko liburua argitaratu zuen. Interesgarria da garai hartan euskaraz argitaratzea eta emakume alfabetatua izatea oso zail zirelako. Osabak eskaini zion hezkuntza etxean. Emakume eta euskaldun izatea diskriminazio egoera bikoitza izanik, Bixentak liburua argitaratu zuen hitzaurre mamitsu batekin. Bertsoak ere argitaratu zituen. Alegiak egiten aitzindaria izan zen.

39. Katalina Elizegi antzerkigilea

- **Erref:** DON-217/003
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:06:33. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Katalina Elizegi antzerkigilea izan zen. XX. mendearen hasieran, emakumea oholtzara ateratzeko aukera sortzen da. Antzerki obrak idatzi zituen eta gehienetan emakumeak ziren protagonista. Askok irakurri eta saritu zuten. Emakumeek antzerkigintzan egiten duten ekarpena sarri itzalean geratzen da.

40. Sorne Unzueta ren poesia

- **Erref:** DON-217/005
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:14:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Sorne Unzueta Emakume Abertzaleen Batzako kide izan zen. Poesian aldarrikatu zuen emakume abertzalea. Bere poemetan emakumeentzat aldarrikatzen zuenaz haratago joan zen. Politikagintzan hizlari izan zen.

41. Emakume Abertzaleen Batza, plazarako bide

- **Erref:** DON-217/007
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Emakume Abertzaleen Batzako asko hizlariak ziren eta aldizkarietan ere idazten zuten; hasieran, emakumeentzako ataletan, denentzat ondoren. Emakumeen Boto Eskubidearen garaia zen. Trebatzeko balio izan zien: politikagintzan, kulturegintzan, irakaskuntzan... Ikastolen sorrera erabat lotuta dago formakuntza horrekin.

42. Emakume Abertzaleen Batzakoak ikas-materialak sortzen

- **Erref:** DON-217/009
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Emakume Abertzaleen Batzako asko ikastolen mugimenduan zeuden eta ikas-materialak, alfabetatzeko metodoak, ipuinak... sortu zituzten.

43. Ezizenez idazten zuten emakumeak argira

- **Erref:** DON-217/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Azken urteetan ikertzen hasi dira, ezizenez sinatzen zuten emakumeak nortzuk ziren ezagutzeko. Batzuen berri izan dute baina beste batzuk oraindik ezezagunak dira.

44. Ohiturak eta arraza mantentzeko, idazle

- **Erref:** DON-217/015
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Julene Azpeitia aipatzen du. Garaiko emakume idazleek Euskal Herriko ohiturek irauteko edo euskaldunak euskaldunekin ezkontzeko (arrazak iraun dezan) ildoak lantzen zituzten.

45. Amaia Lasa, emakumeen eta zapalkuntzen kontzientziatik idazle

- **Erref:** DON-217/017
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:33:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Gerra aurrean, Emakume Abertzaleen Batzako kideek abertzaletasunaren mesedetan idazten zuten poesia. 70.hamarkadan, berriz, literaturan zentratuta idazten hasi ziren. Amaia Lasa izango da emakumeen eta zapalkuntzen kontzientziatik idazten duen lehena.

46. Arantxa Urretabizkaiaren "Zergatik Panpox?" mugarri

- **Erref:** DON-217/018
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:33:08. **Bukatu:** 00:36:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Arantxa Urretabizkaia Lur argitaletxean aritu zen lanean eta hainbat ekarpen egin zituen garai hartan. "Zergatik panpox?" nobela mugarrria izan zen. Garaiko mugimenduari oso lotuta zegoen nobela zela azaltzen du. Emakume batek euskaraz argitaratutako lehen nobela izan zen.

47. Mariasun Landa, haur eta gazte literatura ardatz

- **Erref:** DON-217/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Mariasun Landak haur eta gazte literaturan ibilbide egonkor eta oparoa izan du.

48. Itxaro Bordaren nobelak

- **Erref:** DON-217/022
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:39:01. **Bukatu:** 00:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Itxaro Bordak nobela asko idatzi ditu. "Basilika" nobelak haserrea eragin zuen; parodia egiten du euskal kulturako eragileen kontura. Amaia Ezpeldoi pertsonaiari buruzkoak aipatzen ditu. Lehen lerroan dauden politika gaien inguruko bere iritzia ematen du nobeletan. Euskalkiekin ere lanketa handia egiten du nobeletan.

49. Emakume idazleak ikuspegi matxistatik

- **Erref:** DON-217/025
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:44:32. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeei idazletasuna ukatzeko joera izan dela azaltzen du. Gertatu da emakumeek kode berriak edo balio berriak ekarri izana. Azaltzen du emakume idazleak irakurri direla genero ikuspegi matxista batetik.

50. Emakume musikarien ibilbideaz

- **Erref:** DON-217/027
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Musikaren arloan, emakumeek egin duten ibilbidea azaltzen du. Musika motaren arabera, emakume gehiago edo gutxiago egon dira, nazioartean gertatu izan denaren oso antzera. Talde batean emakumeek duten posizioaren kontua ere garrantzitsua da; izan daiteke emakume batzuk kantuz aritzea soilik edo musika taldearen sorkuntzan eta kudeaketan ere aritzea, eta abar.

51. Emakume musikariak, genero gatazkak geruza askotan

- **Erref:** DON-217/028
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:53:21. **Bukatu:** 00:55:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Oholtzaren bestaldean, antolatzaileak, teknikariak eta bestelako bitartekariak egoten dira eta beti ez da gertatzen gizonezko eta emakumezko musikariak berdin hartzea. Bertsolaritzan eta antzerkigintzan ere antzera gertatzen dela azaltzen du. Genero gatazka asko gertatzen dira geruza askotan.

52. Emakume musikariei epai bikoitza

- **Erref:** DON-217/030
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:56:13. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Plaza hartzen duen edozein emakumeri gertatzen zaio emakume gorputza asko identifikatzen eta kritikatzeko dela. Epaitzen da gorputz jarrerarengatik eta bere jardunarengatik. Gorputzak hartzen du jardunaz besteko garrantzia. Publikoa parean dagoenez, epaia bertan eta zuzenean gertatzen da.

53. Emakume musikariek kantari edo instrumentista onak izan behar

- **Erref:** DON-217/032
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:00:26. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizon kantariei ez zaie kalitate handirik eskatzen ahotsari dagokionez; emakumeei askoz gehiago exijitzen zaie. Musika tresnekin ere berdintsu gertatzen da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com